

# Zer diote txoriek?

Nekatuta nengoen. Azkar nenbilen leku batetik bestera. Lan ta lan. Ia denborarik ez. Bat-batean dana gelditzen da. Dana isilik. Lehiotik nago begira, orain. Leioa ireki dut eta begiak itxi ditut. Aire goxo sentitu. Eta "txio-txio" entzun. Txori batzuk daude hortik. Noiztik ez nituen entzuten? Haiak hizketan jarraitzen dute. Zer diote ba? Agian haien txanda zen. Naturarena. Guk sortzen genuen zarataren eta kearen atzean, natura ohiuka zegoen. Eta orain entzuten dugu.

*Miren*